

Denak erromerian

Trikitixak esnatu ez bazituzten txistulariek esnatuko zituzten. Baina ez trikitixak ez txistulariek ez bazituzten esnatu itxaferoek lortuko zuten zarautzar guztiak esnatzea. Edo dultzaineroek, edo adar hotsek, edo ttuntturroek. Gutxi batzuk esnatuko ziren iratzargailuaren erruz. Beraientzat kalte, ez da berdin trikitilariek esnatzea edo iratzargailuak esnatzea Euskal Jai Egunean. Nola edo hala esnatu ziren zarautzarrrak eta eguraldi ezin hobea lagun zutela ere konturatu ziren, jaietan txingorra egin arren ez baitira gelditzen, baina atzokoa bezalako eguraldiak asko laguntzen du.

Goizaldean kalean jende gutxi zebilen eta baserritarrez jantzita are gutxiago. Txistulariak, trikitilariak, dultzaineroak eta ogi bila zihozenak ziren gehienak. Goiztiarrak taldeak ere bere egin-kizuna oso goiz betetzen du. Euskal irudia antzetzuz, garai bateko pertsonaiak azaltzen dituzte talde honetako partaideek. Apaiza, alkatea, andere dotoreak... guztiak mikeleteen eskoltarekin. Eta atzo ere, urtero bezala talde hau herriko kaleetatik ibili zen, meza nagusira joan zen eta gero pilota partidu kurioso bat antolatu zuten Fronto Txikin.

Bitartean, Zarauzko hainbat etxetan urteroko Euskal Jai Eguneko errituala betetzei ari zen. «Ama non dago gerrikoa?, ama non daude pololoak? ama lagundu iezadazu mantala janzten». Eta urtero bezala, amak berearekin nahikoa ez zuela eta, lagunduko zien sendiko gizon guztiak gerrikoa janzten, Perurenaren laguntzaileek baino trebezia handiagoarekin, eta alabatxoari buruko zapia jarriko zion, moñoarekin ordubetez pazientzia galdu ondoren.

Horrela, pixkanaka, guztiak moñoño-moñoño baserritarrez jantzita hasi ziren kalera irteten. Hamaiketako ederra egin txakolinez bustita, eta txikiteo motz baten eta dantza solte pare baten ondoren, hara joan ziren Alproja taldearen aurtengo antzezlanak ikustera. *Kabaret Eroa* antzetzutu zuten alprojek eta urte osoan egun honetarako lanean jarduten duten zarautzar hauek arrakasta handia lortu zuten. Saio barregarri eta eder honen ondoren, jendea berriz ere herriko kaleetan zabaldu zen, dantzan, kalejiran eta jai giroan.

Bazkaltzera joan aurretik herriko plaza gehienetan zeuden, urtero bezala, trikitilariak, txistulariak... Ai, eta sueltoan ez dakienak zer egin, bere lagun guztiak dantzan dabiltzala ikusita. Badauzka aukerak, batzuk betikoa, «hurrengo urterako sueltoa ikasi behar dut, erakutsiko didazu zuk?». Beste batzuek lotsarik gabe ekiten diote dantzari, «gaizki edo ondo, nik behintzat dantzan egiten dut, nahiz eta nire kontura guztiak barrez aritu». Atzo dantzan ez zekien batek jarritako aitzakia, agian, hurrengo urtean askorentzako baliagarria izan daiteke: «Ez, ni txakolin botila zaintzen geldituko naiz».



Eguraldia lagun, giro ezin hobean igaro zuten zarautzarrek aurtengo Euskal Jai Eguna. ♦ EDURNE KOCH



Baserritarrez jantzi ziren, ohiturari men eginez, herritarrek eta herrira hurbildutako guztiak. ♦ EDURNE KOCH

Musika plazan, Barren plazan, Bizkaia kalean kokatu ziren txosnetan, guztietan zabaldu ziren baserritarrek erromeria giro alaian, eguraldia lagun. Kanpotarrak ere ugari ziren atzo Zarautzen. Urtez urte gero eta jende gehiago hurbiltzen da Euskal Herriko alde guztietatik Zarauzko Euskal Jai Eguna ezagutzera. Aurtun irailaren 9a astelehena izan arren, ez zuen horrek urtero Zarautzen biltzen den jendetza-rengan eraginik izan.

* Bazkalostean erromeria

Bazkalostean, zarautzar guztiak Iñurritzako zelaian bildu ziren erromerian. Goizean txakolin bo-


tilak nagusi baziren, Iñurritzan sagardoa ikusi zen gehien. Merienda, sagardoa eta erroskilak. Eta arratsalde osoan, dantzak,

kalejirak eta zelaian etzanda, tertuliak (baita siestatxoak ere). 20:30ak inguruan hasi ziren zarautzarrek herri erdira itzultzen kalejiran. Ikusgarria, urtero bezala, kalejira honek biltzen duen jendetza, Gipuzkoa kalea eta ondoren Kale Nagusitik Musika plazara kantuan iristeko. Euskal Jai Egunean hainbat gauza ikusgarri badaude, horietako bat da kalejira hau ikustea, eta atzo ere hala izan zen. Ez zen falta izan ez atzo Zarautzen erromeria giroa. Gainera eguraldiak lagundu egin zuen, eta, berez ikusgarria izaten den ekitaldia askoz ere dotoreagoa gertatu zen atzo eguzki diztiratsua lagun zuz.

Asteburuan Zarautzen jokatu zen Munduko Surf Txapelketaren probak jende asko erakarri zuen Zarautzera. Proba igandean amaitu zen arren asko eta asko ezagora arte gelditu ziren, horren atzokoa den jai giroaz gozatzeko asmoarekin. Eta nahiz eta ostiral eta larunbat gauetan eta goizaldeetan nahikoa jai giro izan zuten, atzoko egunari ere zuku guztia atera zioten. Euskal Jai Eguna jende ugari bildu zuen atzo Zarautzen eta herritar asko kezu zen horregatik. Urteik urtera jendetza handiagoa izaten da, eta herria zikin uzten dutela, espektakuluak ematen dituztela... Horrelako kezuak urteroko kontu dira. Duela pare bat urte Euskal Jai Eguna azken orduak (hurrengo goizeko lehenak ulertu behar da) nahikoa erotiko-festiboak izan omen ziren. Kale istiluekin eta Ertzaintzarekin bukatu zen iazko Euskal Jai Eguna. Aurtengo jai eguna, lerro hauek idaztean, giro alaian zihuan aurrera. Hori bai, hurrengo urterako gonbitea luzatzearekin batera, gogoratu Euskal Jai Egunean Zarautzera hurbiltzeko asmoa duen jende guztiari baserritarrez jantzen direla zarautzar guztiak egun horretan.

IRUNE LASA

Karlos ARGIÑANO



Hotela Jatetxea

Berez distirutzen duen jatetxea. Karlos Argiñanoren sukaldaritzak berria, aho finentzat aproposa. Ezkontza eta negozio bazkarietan erabateko euskal sukaldaritzak dastatzeko hobezinak zaizkigu bertako bi jantokiak.

KITARA



Jantzi informalkak eta osagariak

Donibane plaza, 2 ZARAUTZ

Mendilauta, 13

☎ 13 00 00

Faxa. 13 34 50

ZARAUTZ